Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaiko Foru Aldundiaren /2018 **Foru Dekretua**, abenduaren 26koa, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Sailak etxeko hondakinen frakzio organikoaren gaikako bilketarako edukiontzia (5. edukiontzi pertsonalizatua) ezartzeko ematen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena.

| | |
|---|---|
| ERAKUNDE ONURADUNAK | Udal/mankomunitate/ pertsona juridikoak |
| DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK | Edukiontziak, konpostajerako poltsak, etxeko zakarrontziak, eta edukiontziak, giltzak autokospostagialuak eta birringailuak. |
| ESKURATU AHAL DEN DIRU-LAGUNTZA, GEHIENEZ | Udalak ≤ 20.000 bizt.: 50.000 euro (BEZa barne). |
| | Udalak ≥ 20.000 bizt., mankomunitateak eta pertsona juridikoak: 80.000 euro (BEZa barne). |
| EMAKIDA ARAUBIDEA | Norgehiagoka araubidea |
| ESKAERA-EPEA | BAOn argitaratu eta biharamunaz geroko egutegiko 60 egunekoa |
| HARREMANETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA | seccion.residuos@bizkaia.eus |

## ZIOEN AZALPENA

Hondakinei buruzko legeria garatzea edo berrikustea bultzatzeko asmoz eman zuten Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko uztailaren 22ko 1600/2002/EE Erabakia. Haren bidez, Europako Erkidegoaren Ingurumen Arloko Seigarren Programa ezarri zuten, zeinak, besteak beste, honako jarraibide hauek ematen baitutu: batetik, argi eta garbi bereiztea hondakinak eta hondakin ez direnak, eta, bestetik, hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruzko neurriak hartu eta arlo horretarako helburu batzuk ezartzea.

**Decreto Foral** de la Diputación Foral de Bizkaia /2018, de 26 de diciembre, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones que se conceden por el Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural para la implantacion del contenedor de recogida selectiva de la fracción orgánica del residuo doméstico (5º contenedor personalizado).

| | |
|---|---|
| ENTIDADES BENEFICIARIAS | Ayuntamientos/Mancomunidades/Personas Jurídicas. |
| ACTUACIONES SUBVENCIONABLES. | Adquisición de contenedores, bolsas compostables,cubos domicilarios, llaves, autocompostadoras y trituradoras. |
| CUANTÍA MÁXIMA DE LA SUBVENCIÓN QUE SE PUEDE OBTENER | Ayuntamientos ≤ 20.000 hab: 50.000 euros (IVA incluido). |
| | Ayuntamientos ≥ 20.000 hab , Mancomunidades y personas jurídicas: 80.000 euros (IVA incluido) |
| REGIMEN DE CONCESIÓN | Concurrencia competitiva |
| PLAZO SOLICITUDES | 60 días naturales contados desde el día siguiente de la publicación en el BOB |
| CORREO ELECTRONICO DE CONTACTO | seccion.residuos@bizkaia.eus |

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Decisión 1600/2002/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 22 de julio de 2002, por la que se estableció el Sexto Programa de Acción Comunitario en Materia de Medio Ambiente impulsaba a que se desarrollase o revisase la legislación sobre residuos, lo que incluía que se distinguiese claramente entre residuos y no residuos y se desarrollasen medidas relativas a la prevención y gestión de residuos, incluido el establecimiento de objetivos.

Horren haritik, hondakin biodegradagarrien tratamendu biologikoari buruzko lan-dokumentu bat zabaldu zuen Europako Batzordeak, 2001eko otsailaren 12an. Agiri horrek jasotzen dituen printzipio nagusietariko bat zera da: gaika biltzen diren hondakin biodegradagarrien konpostajea eta digestio anaerobioa sustatzea, eta, beraz, hondakinok berriro jatorrizko material bihurtu gabe, konpost gisa erabil daitezela, bai nekazaritzaren onerako, bai ingurumena hobetzeko.

Horrez gainera, Hondakinei eta Lur Kutsatuei buruzko 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak 24. artikuluan xedatzen duenez, ingurumen arloko agintariek, neurriak sustatu eta lege horretako 14. artikuluak aipatzen dituen hondakinen kudeaketarako egitasmo eta programetan jaso ahal izango dituzte,eta horrela sustatu biohondakinak bereiz bildu daitezela eta, gero, konpostajerako edo digestio anaerobiorako erabili.

Bizkaiko Foru Aldundiak iraunkortasuna sustatzearen alde egiten du hiri hondakinen kudeaketan; alegia, hondakinek dituzten baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzearen alde egiten du, horretan bat baitator Europar Batasunak hondakinen kudeaketarako ezarri duen aukeren hierarkiarekin. Hurrenkera horren arabera, prebentzioak izan behar du lehentasuna, eta harekin batera behar dute birziklatzeak eta hondakinei balioa emateak ere. Gainerakoekin, berriz, hondakinak modu seguruan deuseztatzea da aukera, behin arriskuak murriztu ondoren.

Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko udalei eta mankomunitateei konpostajea sustatzen lagundu nahirik, halako ekimenak egiteko aukera emango duten partida batzuk ezarri ditu aurrekontuan.

Aurrekoaren ildotik, 2012. urtetik diru-laguntzen deialdiak onetsi izan dira etxeko hondakinen frakzio organikoaren gaikako bilketarako edukiontzia edo bosgarren edukiontzi pertsonalizatua ezartzeko.

Diru-laguntzen ildoak izan duen harrera onak eta haren bitartez egin diren jardueretan izan den esperientzia positiboak, gomendagarri egiten zuten 2019ko ekitaldian ere berdin jarraitzea

Dekreto honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, haren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioia egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan, foro dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, “Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa”.

En este sentido, la Comisión Europea puso en circulación el 12 de febrero de 2001 un documento de trabajo sobre el tratamiento biológico de los residuos biodegradables que adopta entre sus principios generales fomentar el compostaje o la digestión anaerobia de los residuos biodegradables recogidos selectivamente , sin su transformación en el material original, con la utilización del compost para beneficio agrícola o mejora ecológica.

Asimismo, la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados, establece en el artículo 24 *que las* autoridades ambientales promoverán medidas que podrán incluir en los planes y programas de gestión de residuos previstos en el artículo 14, para impulsar la recogida separada de biorresiduos para destinarlos al compostaje o a la digestión anaerobia.

La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por una gestión de los residuos urbanos orientada a la sostenibilidad, que intente aprovechar al máximo los recursos contenidos en los mismos de acuerdo con la jerarquía comunitaria de opciones de gestión de los residuos, según la cual se deben desarrollar prioritariamente acciones de prevención, junto con actuaciones de reciclaje y valorización y, finalmente, operaciones de eliminación segura para la fracción restante de residuos, una vez reducida su peligrosidad.

Por ello, la Diputación Foral de Bizkaia, en su deseo de motivar y ayudar a los ayuntamientos y mancomunidades de Bizkaia en el fomento del compostaje, ha establecido las correspondientes partidas para posibilitar iniciativas de este tipo.

En línea con lo anterior, desde el año 2012 se han aprobado las convocatorias de subvenciones para la implantación del contenedor de recogida selectiva de la fracción orgánica del residuo doméstico o quinto contenedor personalizado.

La acogida favorable a la línea de subvención así como la experiencia positiva en el desarrollo de las actividades objeto de la misma, aconsejan su continuidad durante el ejercicio 2019.

El presente Decreto Foral incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido encuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres. En este sentido, en su tramitación se incorpora el “Informe de evaluación Previa del Impacto en Función del Género” al que hace referencia el artículo 2 del citado Decreto Foral.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017 de 17 de enero por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14. artikuluak xedatutakoarekin bat, honako txostenak egin dira:

1. Proiektua sustatu duen sailak egindako txosten juridikoa.
2. Genero- eraginaren ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoaren txostena.

Asimismo, tal y como establece el artículo 14 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, se han emitido los siguientes informes:

1. Informe Jurídico del departamento promotor.
2. Informe de evaluación de impacto de género.
3. Informe de control económico.

Horregatik guztiagatik, kontuan izanik maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Diru-laguntzei buruzko Araudia onesten duena; Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren proposamenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2018ko abenduaren 26ko bilkuran eztabaidatu eta gero,

Por todo ello y de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, a propuesta de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el dia 26 de diciembre de 2018.

XEDATU DA

SE DISPONE

Artikulo bakarra. *Diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onespena.*

Artículo Único. *Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones.*

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Sailak etxeko hondakinen frakzio organikoaren gaikako bilketarako edukiontzia (5. Edukiontzi pertsonalizatua) ezartzeko ematen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten ditu.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones que se conceden por el Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural para la implantación del contenedor de recogida selectiva de la fracción orgánica del residuo doméstico (5° contenedor personalizado) cuyo texto se incluye a continuación.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean, indarrik gabe geratuko dira beronetan xedatutakoaren aurka dauden edo berau ezeztatzen duten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

A la entrada en vigor del presente Decreto Foral, quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan lo dispuesto en el mismo.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. *Arauen garapena*.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapenak eman ditzan. Baimen horrek barruan hartzen du behar diren diru-laguntzak ematea eta aurrekontuko kreditua handitu ahal izatea Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, Diru-laguntzei buruzko Araudia onesten duenak, 43. artikuluan ezarritako eran.

Bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbon, 2018eko abenduaren 26an

Ahaldun Nagusia
Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ

DISPOSICIONES FINALES

Primera. *Desarrollo normativo.*

Se autoriza a la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta autorización incluye la concesión de las subvenciones pertinentes y la posibilidad de incrementar el crédito presupuestario en los términos establecidos en el articulo 43 de Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

Segunda. *Entrada en vigor*

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

Dado en, Bilbao, a 26 de diciembre de 2018

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatua/ Diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural

ELENA UNZUETA TORRE

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTZEKO FORU SAILAK ETXEKO HONDAKINEN FRAKZIO ORGANIKOAREN GAIKAKO BILKETARAKO EDUKIONTZIA (5. EDUKIONTZI PERTSONALIZATUA) EZARTZEKO EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

1. *Xedea*

Dekretu honen xedea da diru-laguntzak emateko deialdi bat ezartzea Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek eta mankomunitateek eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udal baten edo batzuen titulartasunpekoak izan eta egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan duten beste pertsona juridiko batzuek hiri-hondakinen bilketan bosgarren edukiontzia (5. sistema, pertsonalizatua) ezar dezaten, eta laguntzok norgehiagoka araubidearen bidez emateko prozedura, betekizunak eta baldintzak arautzea. Helburua da etxeko hondakin organikoen konpostajea sustatzea.

2. *Zer ekintzek jaso dezaketen diru-laguntza*

Honako ekintza hauek jaso dezakete diru-laguntza:

a) Hondakin organikoen gaikako bilketarako erabiliko diren edukiontziak, konpostajeko poltsak etxeetarako zakarrontziak eta edukiontziak irekitzeko giltzak erostea.

Erosten diren edukiontziak aurkeztutako eskabidean zehaztutako kokalekuetan jarri beharko dira, edo, hasierako aurreikuspenetan aldaketaren bat eragiten badute, azkenean egokiagoak legez justifikatuta kokalekuetan. Erositako edukiontzien % 20raino bakarrik erabili ahal izango dira balizko birjarpenetarako biltegi legez (ondorio horietarako, aurreko diru-laguntzetarako deialdien ondorioz erositako materialak hartuko dira kontuan).

Inolaz ere ezin izango du diru-laguntzarik jaso bilketa eta konpostajeko instalazioen hobekuntza estetikorako eta paisaietan hobeto txertatzeko materialen erosketak.

b) Autokonpostagailuen eta birringailuen erosketa, egituratzailea egiteko.

Ildo horretan, foru dekretu honek aurrez ikusten dituen diru-laguntzak jaso ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte goian aipaturiko bi jarduera motek:

1. Edukiontziaren kolorea RAL 8011 edo antzekoa izango da,

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES QUE SE CONCEDEN POR EL DEPARTAMENTO FORAL DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL PARA LA IMPLANTACIÓN DEL CONTENEDOR DE RECOGIDA SELECTIVA DE LA FRACCIÓN ORGÁNICA DEL RESIDUO DOMÉSTICO (5º CONTENEDOR PERSONALIZADO).

1. *Objeto*

Es objeto del presente Decreto Foral el establecimiento del procedimiento, requisitos y condiciones para la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva, a los municipios, mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, y otras personas jurídicas cuya titularidad pertenezca integramente a uno o varios ayuntamientos del Teritorio Histórico de Bizkaia y cuyo domicilio social radique en dicho Territorio Histórico, para la implantación del “SISTEMA 5 PERSONALIZADO” (5º contenedor), con el fin de impulsar el compostaje de la fracción orgánica del residuo doméstico.

2. *Acciones subvencionables*

Son acciones subvencionables las siguientes:

a) La adquisición de contenedores que se vayan a emplear en la recogida selectiva de residuos orgánicos, de bolsas compostables, de cubos domiciliarios para la ciudadanía y de llaves para el acceso a los contenedores.

Los contenedores que se adquieran deberán ser colocados en las ubicaciones previstas en la solicitud presentada o aquellas que finalmente se justifiquen como más adecuadas si suponen una alteración en la previsión inicial. Únicamente podrá destinarse a almacenamiento para posibles reposiciones hasta el 20% de los contenedores adquiridos ( a estos efectos, se tendrá en consideración los materiales adquiridos como resultado de convocatorias de subvenciones anteriores).

En ningún caso será objeto de subvención la compra de materiales cuyo destino sea la mejora estética e integración paisajística de las instalaciones de recogida y compostaje

b) La adquisición de autocompostadoras y de trituradoras para la fabricación de estructurante.

En este contexto, las actuaciones susceptibles de ser objeto de las ayudas previstas en el presente Decreto Foral, deberán responder a los siguientes condicionantes:

1. El color del contenedor será RAL 8011 o similar y

errotulazio egokiaren bidez zein hondakin organikorako den seinalatuko da.

2. Edukiontziaren estalkiak beste estalki bat eduki beharko du gainean, eta, bigarren horrek, sarraila bat eduki behar du, hondakinak botatzean giltzaz ireki eta itxi beharrekoa.

3. Autokonpostajearen salbuespena alde batera utzita, udalek edo mankomunitateek jaso behar dituzte, nahitaez, edukiontzietan jasotzen diren hondakinak. Ondoren, Bilbon dagoen Artigaseko konpostaje-plantara eraman, eta han tratatuko dira. Horretarako, operadoreak zehazten dituen ezaugarriak bete beharko dituzte hondakinok.

Betebehar horretatik salbuetsita daude materia organikoaren bilketa eta tratamendua Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoko erakunderen batekin egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak, horrela frogatzen badute eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan.

Betiere foru dekretu honetan ezarritako informazioa eman beharko dute, alegia, zenbat tona bildu diren eta abar.

4. Atalaseek betetzen duten erkidego-autokonpostajeko instalazioak eta hurrengo baldintzak diru-laguntza arrazoi izan ahal izango dira soilik:

a) Instalazioen gehienezko gaitasuna ez da izango 10 m3 baino handiagoa. Instalazioaren gehienezko gaitasuna zehazteko, konpost-ontzien bolumena zenbatuko da, baita konpostaren bolumena eta material egituratzailea ere, edozein unetan egon daitekeena.

b) Konpostatutako bio-hondakinak haiek erabiltzen dituzten pertsonen etxeetakoak edo lorategietakoak izango dira soilik.

c) Honako hondakin hauek konpostatutako dira soilik:

1.) LER 200101/paper/kartoia: tintarik gabeko sukaldeko papera (detergentez edo beste xaboi batzuez zikinduta ez dagoena).

2.) LER 200108/sukalde eta jatetxeen hondakin biodegradagarriak: barazki eta fruitu-hondar gordinak; janari prestatuen eta ogien hondarrak; haragi- eta arrain-hondarrak; arrautza-oskolak, itsaskiak, fruitu lehorrak eta fruitu-hezurrak; jogurtak eta zuku iraungiak; kafe– eta infusio-hondarrak.

3.) LER 200201/ Parke eta lorategietako hondakin biodegradagarriak: belarra eta hosto lehorrak; moztutako adarrak; lorategietako belar hezea eta landare-

mediante la rotulación correspondiente se señalará la fracción del residuo a la que está destinado.

2. La tapa del contenedor irá provista de una sobretapa dotada de una cerradura para su apertura y cierre mediante llave para el depósito de residuos.

3. Con la excepción del autocompostaje, los residuos orgánicos recogidos deberán ser trasladados obligatoriamente por el ayuntamiento/mancomunidad/ persona jurídica a la planta de compostaje en Artigas (Bilbao) para su tratamiento y deberán cumplir con las características que el operador determine para ello.

Quedan excepcionados de esta obligación aquellos municipios del Territorio Histórico de Bizkaia que realicen la recogida y tratamiento de la materia orgánica con un ente ajeno al Territorio Histórico de Bizkaia y así lo acrediten en la documentación presentada con la solicitud.

En todo caso están obligados a suministrar la información establecida en el presente Decreto Foral sobre toneladas recogidas, etc.

4. Solo podrán ser objeto de subvención las instalaciones de autocompostaje comunitario que cumplan los umbrales y condiciones siguientes:

a) La capacidad máxima de las instalaciones no superarán los 10m3. A los efectos de determinar la capacidad máxima de la instalación se computará el volumen de los compostadores, así como el volumen de compost y material estructurante que puede estar presente en cualquier momento.

b) Los bioresiduos compostados procederán únicamente de los domicilios o jardines de las personas usuarias de las mismas.

c) Únicamente se compostarán los siguientes residuos:

1º) LER 200101/papel y cartón: Papel de cocina libre de tinta ( sin estar sucio de detergente u otros jabones.)

2º) LER 200108/Residuos biodegradables de cocina y restaurantes: restos crudos de verduras y frutas; restos de comida preparada y pan; restos de carne y pescado; cascarás de huevo. marisco, frutos secos y huesos de fruta; yogures y zumos caducados; restos de café e infusiones.

3º) LER 200201/ Residuos biodegradables de parques y jardines: Hierba y hojas secas, ramas de poda

hondakinak.

d) Ondoriozko konposta instalazioen pertsona erabiltzaileek soilik erabiliko dute, eta, betiere, lursail partikularretan. Udalek, instalazioen erabiltzaileak diren neurrian, konpost hori lorategi publikoetan ere erabili ahal izango dituzte.

e) Foru dekretu honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu beharko da Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko urriaren 19ko 1/2015 zenbakiko Jardunbidean xedatutakoa, erkidego-konpostaje instalazioak EAEko lurralde-eremuan bete behar dituzten administrazio-prozedurei buruzkoa.

Jarraibide hori Eusko Jaurlaritzaren web orrian kontsultatu daiteke:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-20698/es/

Erkide-konpostajerako materialen erosketarako aurrez ikusitako aurrekontuak ezin izango du inolaz ere gainditu eskatutako laguntzaren zenbateko osoaren % 25.

3. *Erakunde onuradunak*

Hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko eskumena duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, mankomunitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udal baten edo batzuen titulartasunpekoak izan eta egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan duten beste pertsona juridiko batzuk izan daitezke foru dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun, baldin eta egunean badituzte zerga-betebeharrak, zuzenbideko publikoari dagozkionak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Baldintza horiek eskabidea egiten den unean egiaztatu beharko dira, eta diru-laguntza emateko unean zein ordaintzeko unean eutsi egin behar zaie.

Udal, mankomunitate edo pertsona juridiko bakoitzak proiektu edo ekintza bakar baterako diru-laguntzaren eskabidea izapidetu dezake.

4. *Noiz eta non aurkeztu eskabideak.*

1. Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dute udalek, mankomunitateek edo pertsona juridikoek, eskabidea, alkateak, mankomunitteko buruak edo dagokion pertsona juridikoak sinaturik.

hierba húmeda de jardines y restos de plantas.

d) El compost resultante será utilizado exclusivamente por las personas usuarias de las instalaciones en terrenos particulares. Los Ayuntamientos, en cuanto usuarios de dichas instalaciones, podrán utilizar el compost también en jardines públicos.

e) En lo no regulado en el presente Decreto Foral se deberá tener en cuenta lo dispuesto en la Instrucción nº 1/2015 de 19 de octubre de 2015, del Viceconsejero de Medio Ambiente, relativa a los procedimientos administrativos que deben observar las instalaciones de compostaje comunitario en el ámbito territorial de la CAPV.

Dicha Instrucción se puede consultar en la página web del Gobierno Vasco:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-20698/es/

En ningún caso el presupuesto previsto para la compra de materiales destinados al compostaje comunitario puede superar el 25% del importe total de la ayuda solicitada.

3. *Entidades beneficiarias.*

Podrán ser entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral los ayuntamientos o mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia y otras personas jurídicas, cuya titularidad pertenezca integramente a uno a varios ayuntamientos del Teritorio Histórico de Bizkaia y cuyo domicilio social radique en el Territorio Histórico de Bizkaia, siempre que ostenten la competencia para la recogida y transporte de los residuos urbanos y que se hallen al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, de derecho público y de Seguridad Social. Estos hechos deberán ser acreditados en el momento de la solicitud y mantenerse en el momento de la concesión y pago de la subvención.

Cada municipio, mancomunidad o persona jurídica tramitarála solicitud de subvención de un único proyecto/acción.

4. *Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

1. La petición de subvención, en solicitud suscrita por la alcaldía o la presidencia de la mancomunidad o persona jurídica correspondiente, se podrán presentar a partir del día siguiente a la publicación del presente Decreto Foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Leku hauetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak:

1-. Bulegora joanda

a) Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren erregistroan (Rekalde zumarkalea 30, 3. solairua, 48009 Bilbo), erregistro horren funtzionamendu orduetan (08:30-13:30, astelehenetik ostiralera).

b) Bestetik, Foru Aldundiaren erregistro nagusian ere aurkez daitezke (Diputazio kalea 7, beheko solairua, 48009 – Bilbo), Foru Jauregiaren atzeko kristalezko eraikinean, Foru Liburutegian. Erregistro nagusiaren ordutegia: goizez, 08:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera; arratsaldez, berriz, 16:00etatik 17:30era, astelehenetik ostegunera.

c) Azaldutako guztia gorabehera, 2004ko abuztuaren 18ko 140/2004 Foru Dekretuak (1992ko azaroaren 17ko 120/1992 Foru Dekretua aldatuz) xedatzen duena bete behar da, harexek ezartzen baititu Bizkaiko Foru Aldundian erregistroen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arau oinarrizkoak.

Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan eskabideak aurkezteko bideak erabil daitezke.

Eskaera Posta Bulegoan aurkeztuz gero, Posta Zerbitzuen Araudiaren 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Artikulu horrek dioenez, *"eskaerak gutun-azal ireki batean aurkeztu behar dira, bidali nahi den dokumentuaren lehen orriko goiburuan argi eta garbi ager daitezen onarpena egin duen bulegoaren izena eta data, lekua, ordua eta minutua. Inguruabar horiek onarpena justifikatzen duen agirian agertu behar dira"*.

Aurreko lerroaldean adierazitakoari dagokionez, kontuan hartu behar da honako hau:

Aurkeztutako eskaeran ez bada adierazten Posta Bulegoak zein egunetan eta non onartu duen eskaera, eskaera Bizkaiko Foru Aldundi honen erregistroetariko edozeinetan sartu den data izango da aurkezpen data, ondorio guztietarako.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, egoitza elektroniko horretan dagoen prozeduraren bidez:

Las solicitudes podrán presentarse:

1-. De manera presencial

a) En el Registro del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural (Alda. Rekalde, 30-3º 48009 Bilbao), dentro del horario de funcionamiento del citado registro (de 08:30 a 13:30 horas de lunes a viernes)

b) En el Registro Central de la Diputación Foral (C/ Diputación 7, planta baja, edificio de cristal de la Biblioteca Foral, trasera del Palacio Foral, 48009 Bilbao, de 08:30 a 13:30 horas de lunes a viernes y de 16:00 a 17:30 horas de lunes a jueves).

c) Todo lo anterior, sin perjuicio de lo establecido en el Decreto Foral 140/2004, de 18 de agosto, de la Diputación Foral, de modificación del Decreto Foral 120/1992, de 17 de noviembre, por el que se establecen las normas básicas de organización y funcionamiento de los registros de documentos de la Diputación Foral de Bizkaia.

Asimismo, podrá utilizarse los medios de presentación previstos en el artículo 16.4 de la *Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

En caso de presentar la solicitud en la Oficina de Correos deberá cumplirse lo dispuesto en el artículo 31 del Real Decreto 1829/1999 Reglamento de los Servicios Postales que señala que *"las solicitudes se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. Estas circunstancias deberán figurar en el resguardo justificativo de su admisión"*.

En relación con lo señalado en el párrafo anterior, debe tenerse en cuenta lo siguiente:

Si en la solicitud presentada no se ha hecho constar la fecha y lugar de su admisión por la oficina de Correos, será considerada a todos los efectos como fecha de presentación, la fecha en la que la solicitud haya tenido entrada en el Registro de esta Diputación Foral cualquiera de los registros de la Diputación Foral de Bizkaia.

2.- A través de la sede electrónica de la Diputación foral de Bizkaia a través del procedimiento que figura en dicha sede electrónica: www.ebizkaia.eus/es/catalogo-de-tramites-y-

www.ebizkaia.eus/es/catalogo-de-tramites-y-servicios.

Eskabideari 5. oinarrian adierazitako nahitaezko dokumentazioa erantsi behar zaio

3. Eskabideak aurkezteko epea, foru dekretu hau BAOn argitaratu eta biharamunaz gero zenbatutako egutegiko 60 eguneko izango da.

5. *Eskabideak eta dokumentazioa.*

1. Alkateak, mankomunitateko buruak edo dagokion pertsona juridikokoak sinatuta aurkeztuko da diru-laguntzarako eskabidea.

Eskabidearekin batera, nahitaezko dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute diru-laguntza eskatzen dute erakundeek. Hona dokumentazioa zehazkiago azaldua:

a) Eskabidea, alkateak, erakundeko buruak edo dagokion pertsona juridikoak sinatua, www.ebizkaia.eus-en dagoen ereduaren arabera.

b) Udaleko idazkariak eginiko agiri bat, alkateak, mankomunitateko buruak edo dagokion pertsona juridikoak ontzat emana, hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko eskumena badutela ziurtatzen duena.

c) Egin nahi den proiektua, gutxienez honako agiri hauek dakartzala:

c1) Memoria: argi eta garbi azaldu behar du zer jarduera egin nahi den. Besteak beste, honako hauek adierazi behar ditu:

1ª Jarriko diren edukiontziak, konpostajeko poltsak, etxeetarako zakarrontziak, edukiontzietarako giltzak, autokospostagailuak/ birringailuak eta haien motak.

2ª Udalerrian edo mankomunitatean materia organikoa biltzeko dagoen edukiontzi-kopurua.

c2) Garatu nahi den jarduketaren partidetako bakoitzaren aurrekontu zehatza, osagai hauetako bakoitzaren prezioa eta batuketaren emaitzaren ondoriozko aurrekontua: edukiontziak, konpostajeko poltsak, etxeetarako zakarrontziak, edukiontzietarako giltzak eta autokospostagailuak eta birringailuak, halakorik egonez gero.

servicios.

A esta solicitud se deberá anexar la documentación preceptiva recogida en la base 5

3. El plazo de presentación de las solicitudes será de 60 días naturales contados desde el día siguiente a la publicación del decreto en el BOB

5. *Solicitudes y documentación*

1. La petición de subvención irá suscrita por la persona que ostente  la Alcaldía o la Presidencia de la Mancomunidad o persona jurídica correspondiente.

Junto con la petición de subvención, la entidad solicitante deberá presentar los siguiente documentación preceptiva que se detalla a continuación:

a) Solicitud suscrita por la Alcaldía/Presidencia de la entidad o de la persona jurídica correspondiente, de conformidad con el modelo que se facilite en www.ebizkaia.eus.

b) Certificado emitido por la Secretaría de la corporación, con el visto bueno de la alcaldía o presidencia de la mancomunidad o de la persona jurídica correspondiente, acreditativa de que se ostenta la competencia para la recogida y transporte de los residuos urbanos.

c) Proyecto de la acción a ejecutar, que deberá contar como mínimo de la documentación siguiente:

c1) Memoria en el que se describa claramente las actuaciones a desarrollar. Entre otros aspectos, se deberá indicar:

1ª Número de contenedores, bolsas compostables, cubos domiciliarios, llaves de acceso, autocompostadoras y/o trituradoras a colocar y tipología..

2ª Número de contenedores de recogida de materia orgánica existentes en el municipio o mancomunidad.

c2) Presupuesto detallado de cada una de las partidas que comprenda la actuación a desarrollar indicando el precio unitario y el presupuesto resultante de los siguientes elementos: contenedores, bolsas compostables, cubos domiciliarios, llaves de acceso y autocompostadoras y/o trituradoras , en su caso.

c3)Jardueraren garapenari buruzko programa, zer epe aurrez ikusten den zehaztuz.

c3) Programa de desarrollo de la actuación con los plazos previstos.

d) Beren-beregiko adierazpena, xede bererako beste laguntza edo diru-laguntza publiko batzuk lortzeari buruzkoa,www.ebizkaia.eus-en dagoen ereduaren arabera. Erakunde eskatzaileak beste diru-laguntzaren bat lortu badu, hura emateko ebazpenaren kopia aurkeztu beharko du.

d) Declaración expresa referente a la obtención de otras ayudas o subvenciones públicas para la misma finalidad, según modelo que se facilite en www.ebizkaia.eus. En caso de que la entidad solicitante haya obtenido otra subvención, deberá aportar copia de la resolución de concesión de la misma.

e) Diru-laguntza eskatzen duten erakundeek egunean egon beharko dute beren zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzako gainerako betebeharrei dagokienez, eta egoera horri eutsi behar diote, bai diru-laguntza eskatzen denean, bai hura onartu eta ordaintzen denean

e) Las entidades solicitantes deberán estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, hecho que deberán mantener tanto en el momento de la solicitud como en la concesión y pago de la subvención

Diru-laguntzaren eskaera aurkezteak berekin ekarriko du erakunde eskatzaileak baimena ematea instrukzio-organoari zuzenean egiaztatu ahal izateko oinarri honetako e) atalean ezarritako inguruabarrak. Horretarako, dagozkion ziurtagiri telematikoak lortu ahal izango ditu, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.3 artikuluan xedatutakoarekin bat

La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización de la entidad solicitante para que el órgano instructor pueda obtener de manera directa la acreditación de las circunstancias a que se refieren el punto e) de esta base, lo que podrá realizarse a través de los correspondientes certificados telemáticos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

Interesdunek www.ebizkaia.eus helbideak izango dituzte eskuragarri inprimaki normalizatuak, eta pertsona eskatzailearen legezko ordezkariak sinatu beharko ditu inprimakiak

Los impresos normalizados de solicitud estarán a disposición de las personas intersadas en www.ebizkaia.eus. los cuales serán firmados por el/la representante legal de la persona solicitante

2. Baldin eta ez badira eskabidearen atal guztiak betetzen, edo harekin batera ez bada nahitaezko dokumentazioa aurkezten, hamar egun balioduneko epea emango zaio erakunde eskatzaileari akatsak zuzendu edo aurkeztu behar diren agiriak aurkez ditzan. Horrekin batera, jakinaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabideari uko egiten diola ulertuko dela, horren gaineko ebazpen espresua aurretiaz emanik, hala egin behar dela xedatzen baitute Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluek.

2. Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación preceptiva, se requerirá a la entidad solicitante para que en el plazo de diez días hábiles, subsane el defecto o aporte los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición previa resolución expresa en tal sentido, conforme disponen los artículos 68.1 y 21.1 de la *Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

3. Aurkeztu duten eskabidea behar bezala ebazteko beharrezkoak diren agiri eta informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei Iraunkortasuna eta Inguru Naturala zaintzeko Sailak.

3. El Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada resolución de la solicitud presentada.

4.- Baldin eta Foru Aldundiak proposamena egiten badio eskatzaileari, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauko 25. artikuluaren arabera, eskaera berriro egin dezan, eta eskatzaileak ez badu Aldundiak eman dion epearen barruan erantzuten, hasierako eskaeraren edukia atxikiko da.

4. Si se propone a la persona solicitante la reformulación de su solicitud conforme al artículo 25 de la Norma Foral de Subvenciones, y ésta no contesta en el plazo que se le haya otorgado, la propuesta de reformulación se considerará aceptada en todos sus términos.

5.- Baldin eta Foru Aldundiak, laguntza emateko prozeduran zehar, proposamena egiten badu aldaketa egin daitezen eskatzailearen baldintzetan edo hark jarduera egiteko proposatu duen moduan

5. En el caso de que, a lo largo del procedimiento de concesión, se proponga la modificación de las condiciones o la forma de realización de la actividad propuesta por la

(hala egin daitekeela jasotzen baitu Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 25. artikuluak), orduan diru-laguntza beste baldintza horietan jasotzeko onespena eskuratu beharko du Aldundiak onuradunarengandik.

Onespen hori onartutzat joko da, baldin eta, batetik, aldaketari buruzko proposamenean argi azaltzen badira baldintzok, eta, bestetik, onuradunak ez badu kontra dagoenik adierazten aldaketaren jakinarazpena jaso eta emandako epean. Dena dela, ezein kasutan ezingo da hirugarren batzuen eskubiderik urratu.

*6. Balorazio-irizpieak*

1.-Norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira eskabideak.

